

Bidaurretako Senitartea

Joseba Intxausti

Arantzazu urrun egon da beti, kasik XX. mendearen atari-atariraino. Gero, kaminoak, telefonoak eta Internetek ere bertatik bertara utzi digute Santutegia. Bestalde, erromesek bizitzan behin, eta urtero ere, beren bide luze nahiz motzagoak egin arren, eguneroko bizitza Santutegian egin behar zuena, mundutik aparte geratzen zen, nahitaez. Are gehiago, gizon-emakumeak zahartu ere gaur baino gazteago zahartzen zirenean, eta ibilaldi luzeetarako hezurak goiz gogortzen. Arantzazuko tradizioak, ba, Santutegirako ibilera bide neketsu bezala ikusi izan zuen.

Hori dena horrelaxe zen, mendetan Arantzazuko bizilagun bakarrak gertatu ziren fraideentzat ere. Horregatik (eta beste arrazoirengatik), ez da harritzekoa lehentxeago azaldu dugun Santutegiko Senitartea Oñatin bertan Etxe bat moldatu izana. Oñatin, Bidaurretako Kapilau-Etxea edo Ospizioa izan zen Etxe hori.

1. KAPILAU-ETXE ETA PAUSA-LEKU

Bidaurretako Etxeak bi zeregin behinen izan ditu beti: Moja-monasterioari bere apaiz-zerbitzuak eskaini, eta Arantzazuko Santutegiaren mesedetan hainbat eginbehar bete. Bigarren honetaz esan behar dugu hemen zerbait.

XVI. mendetik 1840raino, Bidaurretako Mojen Monasterioa eta Kapilau-Etxea Kantabriako (hau da, Arantzazuko) Probintzia erlijiosoko Etxeak izan ziren, eta bertako Kapilautza, honelakoen artean, Probintziako handienetakoa, bospasei fraideko taldea osatzeraino. Nolabait esateko, alde horretatik, gaur egungo komentu txikien neurria zuen Bidaurretako Senitartea. Juridikoki Santutegiaren menpeko Fraideartea zen hau, eta XX. mendean ere halakoa izan da.

Santutegiak bizi izandako une eta premia historikoei erantzunez, Kapilau-Etxe edo Ospizio honek, komentu-nortasunik izan gabe, eta horrelaxe hain zuzen, zerbitzu-mota ezberdinak eman izan dizkio Arantzazuri. Hasteko, Santutegirako edo handik kanporako joan-etorrietan, Bidaurretako Fraide-Etxea pausa-leku eroso izan da, eta Oñatiko herriarekin, edo ingurukoekin, lotu behar ziren harremanetan bil-puntu ona ere bai, Anaia Limosnari, Aita Predikari nahiz mota guztietako fraideentzat.

Garai estuagoetan Bidaurretak eman izan zion Arantzazuko Senitarteari aterpea, eta bereziki 1834-1840. etako urteetan bertan bizi izan zen hango Fraideartea, Santutegia bera suteak hondatuta gero. Ondoren, Esklaustrazioak komentuak itxi zituenean (1840), Bidaurretako Kapilau-Etxea fraide "beneragarri" deituen (hau da, esklaustratu zahar eta gaixoen) egoitza bilakatu zen.

Bestalde, ezin da ahantzi ondoko moja klaratarren elizan egon zela Arantzazuko Amaren Irudia ere, azken sutearen ondoren, harik eta berriro Santutegira itzuli zuten arte (1834-1846). Arantzazuko Probintzia izanberritu eta hamar-kada batzuk geroago, XX.eko bigarren hamarkadan, Bidaurretako Kapilautza ostera ere frantziskotarren eskuetara etorri zen, eta handik hona Santutegiko Senitarteko parte izan da, eta hango Nagusiaren menpe egon da hemengo Anaiarte txikia.

2. INGURU ZABALAREN ZERBITZUAN

XX. mendean, Bidaurretako Senitartek betekizun ugari eta aldakorrak izan ditu: a) Lehenik, Oñatiko moja frantziskotarren Kapilautzak (Bidaurretan bezala, Santa Anan ere); b) Santutegiarekiko eguneroko zerbitzu txikiak (hango mandatariaren lana erraztuz, eta ortuko lan eta barazkiak, etab.); azkenik, 1980 ingurutik hona Oñatiko pastoral bateratuan hainbat erantzukizun eta lan.

► BIDAURRETA (OÑATI)

XX. mendeko bigarren hamarkadatik hona, Senitarte txiki bat egon da Oñatiko etxe honetan, mojen Monasterioaren ondoan. Santutegiko fraideartekoa da hemengo taldea ere, hango Nagusiaren menpeko. Egoitza honetatik eramaten dira herriko bi kapilautzak, Santa Anakoa eta Bidaurretako bertako klaratarrena. Hemengo fraideak esku zuzena dute gaur egun Oñatiko parroki lanetan, oro har, eta Bidaurretako elizan eskaintzen diren parroki zerbitzuetan.

BIDAURRETA (OÑATI)

En la residencia de Bidaurreta (Oñati) reside una pequeña Fraternidad, dependiente del Santuario, atendiendo a las dos Comunidades de religiosas franciscanas de la Villa, y participando en la pastoral parroquial.



Azken lanbide honek bertako fraideak San Migel Parrokian parte hartzera eraman ditu, apaiz laguntzaile gisan, Bataio, Hileta eta abarretan esku izanez, eta Parroki Batzordeetan partaide direla. Kezka sozio-pastoral orokorreari erantzunez, behartsu ibiltarientzako babestokia Bidaurretan antolatu da, txukuna eta abegikorra.

Aldi berean, Bidaurretako eliza da inguruetako fededunen elizkizun eta kristau-heziketarako ohizko lekua.

Honela, ba, klaratarren komentu-eliza ederrak bizitza berri bat du, ondoan dituen fraide-kapilauen eskutik.

Besteak beste, Bidaurretako Etxe honetara bildu izanda, egun batzuetarako atsedean bila, bai Santutegiko hainbat fraide, eta era berean beste fraide-komentuetako erlijiosorik ere. Horrela, aukerako gogartetxe pertsonala ere bada, horrelakoetan, Bidaurretako hau.

■ BIDAURRETAKO FRAIDEARTEA (2001)
Bidaurretako Fraidearteak azken hamarkadetan bilakaera nabaria izan du bere eliz lanari dagokionean: betiko kapilautzen ondoan, pastoral bateratuan harreman berriak sortu zaizkio Senitarteari, bai San Migel Parrokiarekin, eta berdin Bidaurretako elizan bertan bete beharreko zereginetan ere. Hona V. Mendeurren honetako Fraidearteak: Jose Manuel Garaialde (Orendain, 1927), Fermin Altube (Oñati, 1921), Migel Iñurritegi (Oñati, 1925) eta Juan Ignazio Agirre (Donostia, 1946).

COMUNIDAD DE BIDAURRETA (2001)
La Fraternidad de Bidaurreta, que siempre tuvo carácter de Capellanía, ha incorporado en las dos últimas décadas tareas nuevas dentro de la pastoral de conjunto, como Centro de Culto y Evangelización en la iglesia contigua y como responsable de cometidos concretos en la Parroquia de San Miguel. Foto: Comunidad de religiosos, en 2001.

